

IRAGARKIA

emon izena
BIZI POZIK
udalekuetan



Lagun eta ekintza ahaztezinak
egingo dozuz

- Uztaila osoan
- 6-12 urte bitarteko umeentzat
- Astez aste programa ezbardinak.

Informazio gehiago: bizipozik@udalekuak.eus

1.- Iragarki horrek zer gura dau?

Umeek kirola egitea

Baloiaz jolastea

Pozik bizi izatea

Udalekuetan izena emotea

Informazio gehiago emotea

Programa bat egitea

2.- Zer esaten dau? Osotu.

- a) BIZI-POZIK izena da.
- iragarkiaren - izenaren - udalekuen - lekuaren
- b) Udalekuak umeentzat dira.
- 12-16 urteko - kirol-zale - 6-12 urteko - Bilboko
- c) bizipozik@udalekuak.eus-ra idatzi zeinke,
- informazioa eskatzeko - ordaintzeko
- informazioa emoteko - zorionak emoteko
- d) Udalekuan egingo diran lagun eta ekintzak zelangoak izango dirala dino?
- dibertigarriak - ahaztezinak - ezbardinak - lasaiak

3.- Esan egia ala guzurrea dan.

- – Udalekuak uda osoan burutuko dira.
- – Aste ezbardinetan programa aldatu egingo dabe.
- – Kartelean ez dago informazio guztia.
- – Informazio gehiagorako telefonoz deitu behar da.
- – Jendea udalekuetara joaten animatu gura dabe.
- – 5 urteko umeak udalekura joateko aukera dabe.

4.- Erantzun era laburrean:

- a) Iragarkia argitaratzeko hilabete egokiena?
- b) Zein hilabetetan burutuko dira?
- c) Zer egin behar dozu BIZI POZIK udalekuetara joateko?
- d) Nortzuk hartu daike parte udaleku horreetan?
- e) Informazio gehiago lortzeko zer egin behar da?